

2011-2012 IKASTURTEKO ARAUAK

1. MATRIKULA EGITEKO EGUNAK

Inprimakiak jasotzea: otsailaren 28tik aurrera

Oraingo ikasleen matrikulazioa: otsailaren 28tik martxoaren 18ra

Ikasle berrien eskariak: otsailaren 28tik apirilaren 15era

Onartuen zerrenda argitaratzea: maiatzaren 5ean

Ikasle berrien matrikulazioa: maiatzaren 13ra arte

Ordutegiak banatzea: ekainaren 9an

Oharra: Matrikula formalizatzeko orduan, **oso garrantzitsua da** helbide elektroniko eta sakelako telefonoren baten zenbakia ematea; izan ere, ikasturte honetatik aurrera, komunikazioak bide bi horietatik egingo dira.

ESKAERA GUZTIAK (ORDUTEGIA EDO ESPEZIALITATEA ALDATZEA, MATRIKULA BALIOGABETZEA, ETAB.) IDATZIZ EGIN BEHARKO DIRA ZENTROKO IDAZKARITZAN ETA WEBGUNEAN (www.bilbaomusika.net) ESKURAGAI DAUDEN IMPRIMAKIAK ERABILIZ. HALABER, MATRIKULAK EPEAREN BARRUAN EGIN BEHARKO DIRA, DERRIGORREZ. EPEAK AMAITU ETA GERO EZ DIRA ONARTUKO EZ MATRIKULARIK, EZ ALDAKETARIK EZ MATRIKULA BALIOGABETZEKO ESKAERARIK.

2. ESPEZIALITATEA ALDATZEKO ESKARIA

Gaur egun eskolan ari direnek espezialitatea aldatzeko eska dezakete. Horretarako, pausu hauek jarraitu behar dituzte:

1. Matrikula egitea otsailaren 28tik martxoaren 18ra, une horretan ikasten ari den espezialitatea jarrita.
2. Ikasle berriaren eskaria egitea, otsailaren 28tik apirilaren 15era, espezialitate berria jarrita. Eskari berri guztiak bezala, eskari hori zozketan sartuko da. Espezialitate berrian onartzen badute, berez egingo da aldaketa eta egiten ari zen espezialitatetik kendu.

3. ORDUTEGIA ALDATZEKO ESKARIA

Ordutegia, taldea edo zentroa aldatzeko eskariak ekainaren 9tik 17ra egingo dira, pausu hauek jarraituz:

1. Eskari normalizatua behar bezala bete. Inprimaki hori webgunean (www.bilbaomusika.net) eta zentroko idazkaritzan dago eskuragai (Sorkunde, 8 48006 - Bilbo).
2. Inprimaki hori zentroko idazkaritzan aurkeztu, sarrera-erregistroa emateko. Behar bezala egin eta erregistratutako eskariez bakarrik arduratuko da zentroa.

Berehala aztertuko dira datuak kopiatzean akatsen bat egon denean, irakasgaien ordutegiak bateraezinak direnean edo zentroak berak egindako beste edozein akatsek sortutako aldaketa-eskariak.

4. TASAK ORDAINTZEA, ORDAINTZEKO ERA ETA ERANTSI BEHARREKO AGIRIAK

Urteko tasa, matrikulatutako espezialitate guztien guztirakoa, matrikularen inprimakian adierazitako kontuan helbideratuko da. Urteko tasa hiru zatitan ordainduko da, urriaren, azaroaren eta abenduaren lehenengo hamabost egunen barruan.

Ordainagiriren bat ordaintzean hilabetetik gorako atzerapena izateak, ondorio hauek izango ditu:

1. BilbaoMusikak berehala utziko dio zerbitzua emateari.
2. Antzinasuna dela-eta eskuratutako eskubideak galduko dira. Hurrengo ikasturteetan ikasle berrientzat ezarritako eran egin beharko dute matrikula.

Tasa gutxiago ordaintzeko eskubidea ematen dute aita eta ama, biak, edo familia-unitatea langabezian egotea edo familia ugaria izatea. Horrelakoetan, horien ziurtagiriak aurkeztu behar dituzte matrikula egitean. Salbuespen modura, matrikula egiten denetik egoera pertsonala edo familiarra aldatu bada, eskatutako murrizketa eragingo duen egoera ziurtatzeko agiriak aurkeztu beharko dira urriaren 7a baino lehen. Bilbon errolatuta ez daudenek % 50 gehiago ordainduko dute.

5. MATRIKULA BALIOGABETZEKO ESKARIA

Urriaren 7ra arte matrikula baliogabetu ahal izango da; horretarako, webgunean (www.bilbaomusika.net) eta zentroko idazkaritzan (Sorkunde, 8 48006 - Bilbo) eskuragai dagoen inprimakia bete behar da eta ordaindutako tasak itzuliko zaizkio.

Urriaren 9tik aurrera uko egin, matrikula baliogabetu edo baja emanaz gero, kasu hauetan bakarrik itzuliko dira tasak:

- Gaixotasun larria, istripua edo ezustean gertatutako beste edozein kausa.
- Bizilekua, lanlekua edo ikasketen lekua aldatzea.
- Araututako musika-irakaskuntzan hastea.

Horrelakoetan, eskabidearekin batera, zergatia egiaztatzen duten agiriak erantsi behar dira. Arrazoia bada ordutegia ez dela bateragarria eskolaz kanpoko jardueraren batekin, ez da inolaz ere matrikula itzuliko. **Irakasleari jakinaraztea edota eskoletara ez joatea ez da, inolaz ere, matrikula baliogabetzeko eskaritzat hartuko.**

Matrikula baliogabetzeak ondorio hauek izango ditu:

- BilbaoMusikak berehala utziko dio zerbitzua emateari.
- Antzinasuna dela-eta eskuratutako eskubideak galduko dira. Hurrengo ikasturteetan ikasle berrientzat ezarritako eran egin beharko dute matrikula.